

KONTROL MOZIOA

GROSEKO JUBILATUEN ETXEA (ZABALTZA) LEKUZ ALDATZEA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko otsailaren 17an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014an, Udaleko Adinekoen eta Ezgaitasuneko zerbitzuak erretiratuen elkartetako lokalen egoeraren azterketa egin zuen. Teknikoek egin zuten txostenean honako hau adierazten da Zabaltzaren inguruan:

Ubicación del local:	Zabaleta 42. Se accede a través de la galería interior que une las calles Zabaleta y San Francisco
Titularidad:	Municipal.
Metros cuadrados:	273 m2
Número de personas socias:	200
Población mayor de 65 años a menos de 500 metros:	Total: 4.887. Hombres: 1.837 Mujeres: 3.050
Existencia de otra asociación en el barrio:	No.
Deficiencias y posibles soluciones	<ul style="list-style-type: none"> * Problemas de Accesibilidad: El acceso a la zona alta(salas colgantes) es a través de escaleras. * Solución: (1) Colocación en el interior del local de un elevador y una pasarela que conecte ambas zonas, (2) búsqueda de otros locales donde poder realizar las actividades * Coste aproximado de la solución de obra: 67.000 €

Gauzak horrela, 2017ko azaroaren 29an alkateak prentsan iragarri zuen Groseko jubilatu etxea lokal berri eta irisgarri batean kokatzeko Udalak Oiartzun kaleko espazio bat erosí behar zuela¹.

2018ko uztailaren 16ean berriro ere, prentsan irakurri genuen Udalak lokal erosiko zuela Oiartzun kaleko 1 eta 3 zenbakietan, auzoko jubilatu etxea bertara mugitzeko². Urtebetet

¹ Noticias de Gipuzkoa: *el Ayuntamiento de Donostia comprará un local en la calle Oiartzun para acoger el nuevo hogar del jubilado del barrio. Actualmente este servicio se encuentra en el pasadizo que une las calles Zabaleta y San Francisco. El espacio tiene problemas para adecuarse a las normativas de accesibilidad, por lo que el Consistorio ha optado por crear un nuevo hogar en otro punto del barrio. Así lo anunció ayer el alcalde, Eneko Goia.*

baino gehiago joan den honetan, ez dugu berririk izan eta Groseko jubilatuek Zabaleta kaleko lokalean jarraitzen dute, beren jarduna oztopatzten duten irisgarritasun arazo larriekin.

Pertsonen Batzordearen otsaileko bileran, Gizarte-ekintzako delegatuak adierazi digu, gaur gaurkoz, lokala ez dagoela erosita, bizilagunen komunitateekin eta lokalaren sotoaren jabeekin akordioaren bila ibili direlako.

Gauzak horrela, ezin dugu ulertu nolatan iragarri zen 2018an lokala erosiko zela eta Zabaltza elkartea “laster” aldatuko zela leku, kontuan izanda prozesu hau oraindik urtebetetik behintzat atzeratuko dela.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, herritarren diru publikoarekin aurrera eraman nahi dituen proiektu edo programen inguruko informazio publikoa zorroztasun eta gardentasunez eman dezala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Zabaltza jubilatuen elkartearrentzat lokal berria erositakoan udal taldeoi haren berri ematea.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Zabaltza jubilatuen elkartearren lokal aldaketa urtebeteko epean egiteko ahalegina egin dezala, irisgarritasun arazoak larriak direla kontuan hartuta.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia

2 <https://www.gipuzkoagaur.com/2018/07/16/el-consistorio-adquiere-un-local-para-situar-el-hogar-del-jubilado-de-gros/>